


IES KOLDO MITXELENA BHI



HBSP PROIEKTUA

2020-2021

Ikasturtea



IES KOLDO MITXELENA BHI
ERRETERIA



1. Aurkezpena

Koldo Mitxelena BHI Errenteriako Galtzaraborda Etorbideko 43. zenbakian kokaturik dagoen institutu publiko bat da. Gaur egun (2018-2019 ikasturtean) 69 irakasle (33 plazadun, horietako 6 zuzendaritzaren ardura dute), 5 langile ez-irakasle (3 plazadun), 5 garbitzaile eta 472 ikasle (236 DBH eta 236 BATXen) gara. Bertan DBH eta Batxilergoa ikasten da. DBH osatzen duen ikasleria herrikoa da, hau da, Errenteriakoa. Batxilergoa ikastera datozenak aldiz, eskualdekoak dira: Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia. Gainera, 2018-2019 ikasturtean **Gela Egonkorrak** bere ibilbidea hasi du. Gela honek, gaixotasun eta zailtasun sakon berezidun ikasleak eskola publikora joaten ahalbidetzen du, eta Institutuko klaustroak eta komunitateak bere babes osoa eman dio.

Ikastetxea D eredu globalera iritsiko da 2019-2020 urtean, ez da B eredurik egongo. Hala ere DBHko etorkinen ehunekoa aurten %17 izan da eta asko kurtso erdian etortzen direla jakinik, hizkuntzarekin (euskararekin bereziki) ditugun zailtasunak azpimarratu nahi ditugu.

Ikastetxeak bi eraikin ditu: Pio Baroja eraikina (Jangela, bikoizketa gelak, teknologia tailerra, artisautza tailerra, ikasketa gela eta Gela Egonkorra) eta Koldo Mitxelena eraikina (DBH 1, DBH 2, DBH 3 eta DBH 4 eta Batxilergorako).

Institutua trantsizio momentu batean dago. Alde batetik, irakasle asko jubilatzeke dago, eta behin behineko irakasleak dira mintegiak osatzen dituztenak. Bestetik zuzendaritza taldea berria da. Baina berria izanik ere, zuzendaritza proiektua aurkeztu eta onartu ondoren, lau urtetarako konpromiso honek egonkortasuna ematen dio eta gidalerroak markatzen ditu.

Familien egoera sozioekonomikoa gure eskolan azpimarragarria da. Bekadunen kopurua handitzen joan da. Gure eskolako 472 ikasleetatik 220 bekadunak dira (121 DBHn eta 99 batxilergoan), hau da, eskolako %46,6 bekadunak dira. DBH bakarrik kontutan hartuz, DBH 236tik 121 bekadunak direnez %51 dira bekadunak. Familien jatorri eta kultura desberdinak ere nabarmenak dira. Mota askotako familiak daude, gure institutuan seme bat edo biko familia "tradizionalak" salbuespena dira (guraso banatuak, etorkinak, langabetuak, ama edo aita gabeko ikasleak, diputazioaren menpe dauden ikasleak, gizarte-zerbitzuen menpe daudenak, etnia desberdinetakoak...).

Gurasoek, orokorrean, lehen mailako ikasketak dituzte, eta neurri txikiagoan unibertsitate-ikasketak (DBHko ikasleen artean bereziki).

Familien parte-hartzea txikia da, bai ate-irekien egunean, bai bileretan, bai OOG-rako partaideak aukeratu behar direnean ere. Absentismo kasuen zerrenda ez da motza, eta horri buelta ematea lan handia suposatzen digu.

Guzti hori kontutan hartuz, gure ikastetxeko ikasleriaren artean HBSP//PREE, eta antzeko programen, behar handia duten ikasle asko ditugula argi ikus daiteke. Ikasle batzuen eskola zailtasunak eta atzerapenak (hizkuntza eta maila arazoak etorkinen kasuan) beraien gizarte-egoera desabantailatsuengatik indartuta ateratzen da. Ezin dute klaseko erritmo arrunta jarraitu, ezin dituzte kanpo laguntzak ordaindu, eta HBSP//PREE programak eskola arrakasta indizeak hobetzen laguntzen digu urtez urte.

Datorren ikasturterako 2 IRAKASLE beharko genituzke guztira DBHko lehen zikloan egoera honetan dauden ikasle kopurua 25 izango dela aurreikusten dugulako. 1 DBHn (5 ikasle + errepikatuko dutenek) ikasle eta 2 DBHn (20 ikasle – errepikatuko dutenek) aurreikusten dira. Talde hauen kopuruetan aldaketak egoten dira ikasturtean zehar arrazoi ezberdinengatik.

Bi irakasle horiek, orokorrean esanda, 1 eta 2 DBHn indartze saioak izango dituzte. Haien lana arlo instrumentalak indartzea izango litzateke. Metodologiari dagokionez, Koldo Mitxelenaren erabakia, 2. irakaslea gelan sartzea izan da, honek inklusibitatea bultzatzen baitu.

2. Proiektuaren azalpena

2.1. - Aniztasuna eta HBSP//PREE erlazioa ikastetxeko beste proiektuekin

2.1.1. - Ikastetxearen ibilbidea aniztasunari erantzun inklusiboa ematen

Gure institutua kokaturik dagoen udalerriaren egoera sozio-ekonomikoak arreta berezia eskatzen digu, ditugun ikasle guztien heziketan berdintasuna bermatu nahi badugu bederen. Helburua argi dugu: gure ikasleek derrigorrezko hezkuntzaren

helburuak ahalik eta egoera egokienean lortu behar dituzte, eta horretarako haien beharretara egokitzea ezinbestekoa dugu.

Koldo Mitxelena institutuak urte asko daramatza ikasleen aniztasuna bere lanaren ardatz bezala hartzen. Eskola inklusiboa abian jarri zenez geroztik hain zuzen. Ikasturte berri bakoitzean kasuistika zabal batekin egiten dugu topo: ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak, ikasturteari hasiera oso berandu ematen diotenak, desberdintasun sozio-ekonomiko larriko ikasleak, eta abar. Adibide gisa aurten, 2018-2019 ikasturtean, 1. DBH eta 2. DBH mailetan programan parte hartzen dutenen datu esanguratsu batzuk:

	<u>DBH1</u>	<u>DBH2</u>
Bekadun kopurua	42/60	40/69
Bekadunak ehunekotan	% 70	% 57.97
Errepikatzaileak	15	9
Ez idoneoak	30	28
Etorkinak	7	18
Ijituak	4	4

Horiei guztiei begira, zuzendaritza taldeak elkarlana bultzatu, koordinatu eta dinamizatu nahi du, aniztasuna modu inklusiboan lantzen duten HBSP//PREE, BIDELAGUNA, GELA EGONKORRA, ANIZTASUN taldeak, hezkidetza taldeak, udaletxeko proiektuak, beste batzuen artean bultzatuz eta indartuz. Gure ikasleek, behar duten laguntza guztia jasorik, eta eskolaren parte sentituz, goian aipatu dugun helburua lor dezaten. Azken finean, nahi duguna zera da: gure ikasle guztiek, norberaren egoera soziala, ekonomikoa edo kulturala gaituz, elkarrekin bat eginik ikas dezaten eta eskola-arrakasta, zentzu zabalenean, lor dezaten. Hori baita HBSP//PREE proiektuaren helburua, ikasketa prozesuan arazoak dituzten ikasleei ikasturtea aurrera eramaten laguntzea.

Programan parte hartuko duten ikasle egokienak izateko informazioa bi tokitatik datorkigu. LHko 6. mailako tutoretatik eta aurre-ebaluazioko informaziotik. LH6ko tutoreek HBSP//PREE programan dauden ikasleen zerrenda pasatzen digute eta horiek babestu nahi dira, hurrengo urtean ere parte izan daitezzen horrela aholkatzen

badigute eta behar hori izaten jarraitzen badute. Bestetik, ikasturtean zehar egindako ebaluazio saioetatik, ikasketa prozesuan zailtasun handienak dituzten ikasleak proposatzen dira programan parte hartzeko. Orokorrean, batez ere arlo instrumentaletan zentratzen gara baliabideak gehiagorako ematen ez duelako. Bigarren irakasle bat gelan egonda aniztasunaren trataera era bat aldatu egiten da eta gelan dagoen egoerari egokitzen da. Honek eskatzen du koordinazio estu bat arloko irakaslea, errefortzu irakaslea, mintegia eta zuzendaritzaren artean. Ikasturte amaieran errefortzu memoria bat egiten da mintegi bakoitzean non indartze prozesuan egon diren ikasleen balorazioa egiten da eta hurrengo ikasturtearen hasieran errefortzu plana burutzen den. Une honetan jakiten da zehatz-meatz baliabidearen ordu kopuru osoa eta zer irakasleei dagozkien, eta gela bakoitzean zenbat ikasle ditugun egoera horretan eta bakoitzaren egoera zehatza ere.

2.1.2. HBSP//PREE eta aniztasunaren arretarako planaren lotura

Aniztasunari erantzuteko plana, hiru plan garrantzitsuen lotura da. KULTURARTEKOTASUN PLANA (gure ikastetxean ANIZTASUN KULTURAL PLANA izenarekin ezagutzen da), HIZKUNTZA INDARTZEKO PLANA (HIPI) eta HEZKUNTZA INDARTZEKO PLANA (HBSP//PREE). HBSP//PREE programaren bidez ikaste-irakaste prozesuan zailtasunak dituzten ikasleei laguntza ematea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Hiru zailtasun mota nagusi dituzten ikasleak bereizten ditugu. Kasu askotan aurreko planetan detektatutako ikasleak izaten dira.

Lehenik, matematika eta irakurketa idazketa ikasketetan zailtasunak dituzten ikasleak. Hauentzako errefortzu irakaslea eta arloko irakaslea tutorearekin elkarlanean egotea beharrezkoa da. Ikasturte hasieran balorazio zehatz bat egiten da eta lan egiteko erak adosten dira. Astero denbora eskainiko zaizkio testu irakurketa ulermenari eta matematika buruketei. Ikasle hauetako asko beste laguntza programaren parte dira ere, adibidez BIDELAGUNA.

Bigarrenik, gure Hezkuntza Sistemara iritsi berriei arreta berezia jarriko zaie. Errefortzu irakaslea eta arlokoa tutorearekin batera, beti elkarlanean, ikasleak dituen zailtasun handienak behatuko dituzte lehenengo egunetan eta hortik abiatuta oinarrizko lanak burutuko dira. Ikasle hauek, askotan HIPIaren laguntza jasotzen dute.

Eta hirugarren, Gizarte desoreka jasaten duten ikasleak. Tutorea eta errefortzu irakasleak behatuko dituzte ikasle hauen behar nagusiak, ez bakarrik arloetako gaitasunetan baizik eta baliabideetan ere. Behar guzti hauek gutxitzen joateko arreta berezia jarriko zaie eta denbora berezia eskaini. Arazo nagusiena, etxeke lanak egiteko baliabideen falta izanez gero, ikasle hauei bidelaguna programaren orduetan etxeke lanak egiteko aukera emango zaie eta lehentasuna izango dute. Berriz, arazoa oinarritzko gaitasunak barneratuak ez izatea bada, hor jarriko da arreta bereziki.

2.2. Baliabideen erabilera gelaren praktika inklusiboan

Koldo Mitxelena BHI n eskola inklusiboa eta geletako praktika inklusiboan ezinbestekoa da laguntza edo errefortzua behar duten ikasleak ez izatea diskriminaziorik arrazoi honengatik. Ikasle guztiek bermatua dute kalitatezko hezkuntza bat aukera berdintasunean.

Hau horrela izanda, hau izango da baliabideen erabilera:

Datorren ikasturterako espero dugu DBH1 eta DBH2n 4na talde izatea. Argi izaten dugu laguntza behar duten ikasleak talde guztietan izango ditugula. Bi irakasle izanik programa honen barruan, hau izango litzateke gure antolaketa gelaren praktika inklusiboari erantzuna emateko.

DBH1 : 4 talde izanik lehenengo helburua taldeko ikasle kopurua murriztea betetzat joko genuke. Laugarren gela ateratzeak suposatzen duen ratio jaitsierak erraztasunak ematen dizkigu aniztasunaren trataera egokiago bat ematen eta gela guztietan praktika inklusiboan ere. Gainera, talde bakoitzean zenbat eta ikasle kopuru handiagoa izan taldean topatu dezaketen dispersioa askoz ere handiagoa da eta gehiago kostatzen zaie zentratzea.

Zailtasunak dituzten ikasleak gela guztietan izaten dira. Taldekatze irizpideak eskola inklusiboak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzte eta horrek esan nahi du zailtasunak dituzten ikasleak banatzerako orduan zailtasunak izateagatik ez direla banatuak izango eta beraz talde guztietan izango ditugu.

Hau horrela izanik arlo hauetan egingo litzateke erabilpen nagusia. Bigarren irakasle bat gelan:

MATEMATIKA astean orduen %50

GIZARTE astean ordu bat

NATUR ZIENTZIAK astean orduen %50

DBH2: 4 talde izango ditugu. Errepikatzaileak kontutan hartzen baditugu taldeak nahiko beteta aurkituko ditugu. Bigarren mailak berezitasun bat du eta da 15 urteko ikasleak 2 aldiz errepikatu dutenak ere topatzen ditugula. Honek zailtasunak areagotu egiten ditu zentzu guztietan. Normalean ikasle hauek Aniztasun Kurrikularreko programara bideratuak izaten dira edo Oinarrizko Lanbide Heziketara. Ikasle hauen arazoak ez dira akademikoak bakarrik izaten baizik eta eskolaz kanpokoak ere izaten dira.

Hala ere eskola inklusiboaren babesa eta laguntza izango dute gurean dauden bitartean. Errefortzu irakasleak 2. mailan duen papera ez da 1 mailan duenaren adinakoa. Askotan eduki akademikoak alde batera utzi behar izaten dituzte laguntza pertsonala eta emozionala emateko.

Banaketa honela izango litzateke. Bigarren irakasle bat gelan arlo hauetan:

MATEMATIKA astean orduen %50

GIZARTE astean ordu bat

FISIKA KIMIKA astean orduen %50

Posible izanez gero eta orduak ematen badute tutoretza orduetarako bigarren irakasle bat sartuko zen gela guztietan ikuspegi orokor bat izan dezan gela bakoitzean eta koordinatzaile moduan arituko lirateke.

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza izango da nagusiki erabiliko den metodologia arlo guzti hauetan. HBSP//PREE programan dauden ikasleak antolatutako lan taldeetan sakabanatuak izango dira. Horrela saiatuko gara programan parte hartzen duten ikasle guztiak talde desberdinetan egotea. Helburua lan kooperatiboa bultzatzea eta talde lanetan sortutako sinergiak aprobetxatzea da.

Aldez aurretik aipatutako arloetan 2. irakaslea gelan dagoenetan saioak izaera desberdina izango du. Ordu horietan taldeka, proiektuak errebisatu, birpasatu, lagundu eta ikasle hauen lana egokitu beraien kompetentzi maila errealaz abiatuta kompetentzi edo gaitasun minimoetara iritsi daitezten.

2.3. Antolaketa eta metodologia aldaketak aparteko

baliabiderik gabe ezzz.....

Duela hiru ikasturte Koldo Mitxelena BHIk Sare Hezkuntza gelan proiektuan parte hartu zuen. Bi urteko proiektua zen eta bertan egonda eskolako esfortzuak 1. DBH eta 2. DBHn egon ziren. Helburuak, oso labur esanda, aldaketa metodologikoak gelan IKTak erabiliz edo eta IKTak gelara eraman normaltasunez gelako egunerokotasun metodologikoetan integratuz.

Metodologi aldaketa hauek 1. zikloan ezarri ziren eta une honetan ardatz dira zenbait ikasgaietan bereziki. Metodologi berri hauek POI eta Ikasketa kooperatiboa dira. Lan egiteko modua lankidetzako ikaskuntza bultzatzen du eta elkarlaneko ikaskuntza, hau da, ikasleak berain arteko harremanak sendotu eta lanean jartzeko gai dira elkarri lagunduz eta arloen arteko harremanak ere sendotzen dira elkarren arteko proiektuak sortzen direlako. Honen adibide STEAM proiektua dugu.

Aurreko urtean IKT heldutasun maila aurreratua ere lortu genuen. Beraz esan daiteke IKTen inguruan gure saiakerak oso aberatsak direla. Heldutasun maila aurreratua lortzeko eta eskolako esfortzuak borobiltzeko MOODLE plataforma eskola guztian zabaldu zen. Ikasle guztiak matrikulatuta daude MOODLEn ikasgai guztietan, irakasle guztiak alta eman dute ikasgai guztiak MOODLEn, eta gehiago esango genuke, martxan hasi dugun azken berrikuntza, gure proiektuen informazio eta jarduerak MOODLEn jartzea.

Ikasturte honetan Hizkuntza Proiektua eguneratzen jardun gara eta bertan adierazgarri diren zenbait metodologi berri aipatu ditzakegu. Alde batetik irakurketa plan bat burutu dugula non beste zenbait gauzen artean martxan jarri dugu liburutegiaren erabilpen berria izeneko jarduera bat. Bertan irakurmen zaletasuna bultzatu nahi dugu txikienetatik hasita baino ikastetxe osoan inpaktua izan dezan. Beste ekintza batzuen artean bikoteka irakurtzen deituriko ekintzak antolatzen ditugu hilean behin eta bertan hilabete bakoitzean arlo desberdin bateko irakasleak arduratzen dira ekintza burutzeaz egutegia markatu, ordutegia, bikoteak aukeratu gela eta maila desberdinetakoak izan daitezten...

Antolaketaren aldetik gure ikastetxean beti saiatzen gara ahal dugun neurrian behintzat, geletan gehienez 2 irakasle egoten. Gerta daiteke gela batean arloko irakaslea, PTa eta Hezitzailea behar izatea. Hauek lehentasuna dute baino gure ordutegietan saiatzen gara moldatzen eta aurten gainera lortu dugu, 2 irakasle baino gehiago ez egoten gela berdinean. Arloetako ordu kopurua begiratzen dugu eta banaketak egiten dira arlo bakoitzean bi irakasle baino gehiago ez egoten. HBSP//PREE irakaslea egonda antolakuntza konplikatu egiten da baino gai honi lehentasuna ematen saiatzen gara.

Esan behar da baita ere taldeko irakasle kopurua murrizten saiatzen garela, irakasle batek ikasgai bat baino gehiago ematen; adibidez etika eta gizarte, plastika eta teknologia, bi hizkuntza irakasle berdinak horrek beti laguntzen du ikasleen jarraipena eta banakako laguntza eskaintzen.

2.4. Zein jardueratan esku-hartuko duen gelan irakasle batek baino gehiagok, eta ekintza bateratu hori Aurrera nola eramango den

Koldo Mitxelenan arlo instrumentaletan lehen aipatu den moduan 2. irakasle bat sartuko litzateke gelan. 1 eta 2 DBHko gela guztietan eta orduen %50a. Une horietan ezinbestekoa da arloko irakasleekin egiten den koordinazioa. Gai teorikoak edo eta banakako lanak egin behar direnean irakasle bakarra dagoenean burutuko dira eta 2. irakaslea gelan sartzen denetan proiektuak lan egingo da, hau da, taldeak lan egin beharko dute, autonomoak izan beharko dute lan talde horiek eta irakasleen lana izango da lantaldeak dinamizatu, zuzendu eta arreta jarri naiz eta maila akademiko desberdina duten ikasleak egon taldeetan berdintasunean lan egin dezaten. Eta ez bakarrik hori taldeak egiten direnean ere adi egon beharko gara zer irizpide erabiltzen diren era guztietako diskriminaziorik egon ez dadin.

Lan praktikoak egin behar direnean ere saiatu beharko dira koordinatzen bigarren irakaslea gelan egoten zailtasunak dituzten ikasleei ahalik eta laguntza gehien emateko.

2.5. Ikasleei egindako jarraipena

- Astean behin HBSP/PREE tutoreek ikasleekin bilduko dira jarraipena egiteko. Ordu-tegi lektiboan klasea galtzeko arriskua dagoenez bilera hauek arratsaldean antolatzen ditugu. Tutoretza pertsonalizatua deitzen diogu. Gehienetan astelehenetan. Gurasoen baimenarekin. Normalean ez dago arazorik eta Bidelaguna saioen ondoren antolatzen ditugu. Askotan ikasle hauek Bidelaguna programan ere egoten dira eta horrela koordinazio global bat lortzen dugu.

Datorren urterako aurreikusten ari gara tutoretza saioak erabiltzea hiru astetik behin ikasleen jarraipena egiteko eta horrela ordutegietan sartu eta bakarrik beharrezkoa balitz erabili ordu lektiboetatik kanpo dagoen ordutegia.

- Hiruhilabete behin ikasleekin bilera errepikatuko da egoera akademikoaren balorazioa egiteko.

- Ikasturte amaieran bukaerako txosten bat izango dute ikasleek eta familietara bideratuko da.

- Arloetako irakasleak tutorearekin bilduko dira koordinazio bileretan astean behin jarraipena eta egokitzapenak egiteko eta beharrezkoa bada aldaketak edo doiketak egiteko. Asteazkeneko klaseak amaituta koordinazio bilera egoten da 1 zikloan. Tutoreek antolatzen dituzte eta gai desberdinak jorratzen ditugu. Horien artean HBSP/PREE ikasleen jarraipena. Taldeko irakasle guztiak egoten dira eta oso errez ikusi daiteke ikasleen egoera globala. Oso lagungarria izaten da.

- Ordutegietan ezartzen dugun koordinazio beste une bat izaten da arloko irakaslea eta HBSP//PREE indartzea egingo duen irakaslea. Astean behin izaten da eta horrela klaseak prestatzen dituzte, jarraipena egin ikasleei. Bi irakasleak ados jartzen dira eta beraien ordutegietan ezartzen dute ordu hori.

- Jarraipenari laguntzeko erabiliko dugun tresna GOOGLE DRIVE izango da eta bertan jasota agertuko da programaren inguruan dagoen informazio guztia edozein irakasleak ikusi dezake eta ekarpenak egin. Koordinazio bilerak jarraipen egiteko bertatik abiatuko dira.

2.6. Irakasleen laguntzaz eskolako orduetatik kanpo prebentzioa berrindartzeko ordutegia luzatzea

Koldo Mitxelena BHI institutuak eskola orduetatik kanpo egiten dituen jardueren artean hiru aipatuko ditugu. Esan behar da, baita ere, 2018-2019 ikasturtean Hauspoa programan sartzeko asmoa adierazi dugu eta esan digute aurten ez dela egongo deialdirik. Aukera paregabea litzake gurean ordutegitik kanpo indartze tailer gehiago antolatzea programa hau erabiliaz.

2.6.1. BIDELAGUNA:

Helburu orokorra ikasketa prozesuan zailtasunak eta atzerapenak dituzten ikasleei ikasturtea aurrera eramaten laguntzea da. Zailtasun edo atzerapen horiek gainditzen lagundu, arrakasta akademikoa eta pertsonala lor dezaten.

- Ikasleari laguntza ematea gaitasun hauek garatzeko:
 - Autonomia eta denboraren kudeaketa.
 - Lanerako jarrera eta ohitura egokiak.
 - Materiala txukuntzen eta zaintzen ikastea.
- Gaitasun desberdinetan eduki eta trebetasunak eskuratzea.
- Ikaslearen auto-estimua eta segurtasuna indartzea, animatzea.
- Talde naturalarekiko maila akademiko berdina lortzea.
- Eskola arrakastaren indizeak hobetzea.
- Ikasleei (batez ere ingurune fisiko edo estimulu egokirik ez dutenei) laguntza eta bitartekoak ematea beren eskolako atzerapenari aurre egiteko edo hori prebenitzeko.
- Oinarrizko gaitasunak hobeto garatzen lagundu, batez ere irakurketarekin, gai instrumentalekin, lanaren antolaketarekin eta ikasteko ohiturak hartzearekin zerikusia duten zereginetan.
- Ikasleek beren gaitasunen inguruan dituzten itxaropenak hobetzea, baita ikastetxeak berak, bertako ikasleen inguruan dituenak ere.
- Familien eta ikastetxearen arteko harremanak hobetzea.
- IKTak eskola 2.0ren ildotik, gai instrumentaletan aurrera egiteko erabiltzea.
- Ikaslea motibatu DBH bukatzeko eta titulua lortzeko.

2.6.2. ANTZERKI TAILERRA

- Zailtasun akademikoaz aparte arazo pertsonalak edo eta familiarrak dituzten ikasleei laguntza eskaintzen zaie tailer honetan.
- Emozioak eta emozioen kudeaketan laguntza eskaintzen zaie.
- Ikasleen auto-estima eta segurtasuna indartzen da.
- Ikasleak motibatzeke oso egokia da.
- Familien parte-hartzea bultzatzen laguntzen du.

2.6.3. IKASLE ENBAXADOREA

- Lehen zikloko ikasleei eskaintzen zaie
- Ikasle bakoitzari enbaxadore bat jartzen zaio. Normalean Unibertsitatean ikasten duen herriko gazte bat izaten da.
- Ikasle hauek normalean etorri berriak dira, hizkuntzarekin arazoak dituzte batzuetan eta gure kultura eta ohiturak ezezagunak dituzte.
- Astean 2tan egoten dira elkarrekin eta lantzen diren gaiak oso anitzak izan daitezke ikaslearen egoeraren arabera.
- Herriko ohitura eta gazteekin elkartzen saiatzen dira.
- Laguntza akademikoa ere izaten dute behar izanez gero.
- Eskolako ohiturak, agenda, etxeko lanak azaltzen ere laguntza jasotzen dute.
- Familiaren adostasuna beharrezkoa da, beraz, parte-hartzea bultzatzeko egokia da.

2.7. Familiaren parte-hartzea

Kurtso hasieran, guraso guztiekin egiten den bileran, tutoreek HBSP//PREE programaren azalpen labur eta orokor bat ematen dute.

Arazoren bat ikusten denean Tutoreek familiekin kontaktatzen dute programaren berri emateko eta honen funtzionamendua eta helburuak argitzeko.

Tutoreek astero txosten idatzi bat jasoko dute eta familiei helaraziko die. Bertan ikaslearen egunerokoa aipatuko da.

Familia bakoitzarekin, tutoreek kontaktu estua edukiko du, telefonoz, e-mailez.... Beharrezkoa irudituz gero, aurrez aurreko bilerak ere antolatuko dira.

Ikasturtean zehar, beharrezkoa irudituz gero, HBSP//PREE taldeko familiekin bilera bat egingo da, berriro ere helburuak eta funtzionamendua azaltzeko. Horrela etorri berriei programa azalduko zaie.

Gurasoek egindako eskaera bati erantzunez ebaluazio amaiera guztietan bilera bat antolatzen dugu 1 zikloko guraso guztientzat emaitza akademikoak eta jarreraren inguruko zehaztapenak emateko.

Prestakuntzan parte-hartzea: Guraso eskolak antolatzen dituen jarduera, tailer eta hitzaldietan adierazten da.

Batzordeetan parte-hartzea: Gurasoentzako ditugun batzorde ezberdinetan parte-hartzea izaten da eta nagusiki talde dinamizatzailerak eta bileretan adierazten da. Adibidez: OOG, OOG batzordeetan (egonkorra, ekonomikoa, elkarbizitzarena...), BAT taldea, Elkarbizitza behatokia, Agenda 21, Euskararen erabilerarako sortu zen batzordea...

Ordutegia luzatzeko jardueretan parte-hartzea: Beharrezkoa da familien parte-hartzea banakako tutoretza egin ahal izateko eta bertan ikasle guztien egoera aztertu eta behar duen egokitzapena egiteko eskola arrakasta lor dezan.

Ordutegia luzatzeko jardueretan oso garrantzitsua da familien parte-hartzea; hori gabe ikasleek ez dute baimena ekintza eta jarduera horietan parte hartzeko eta horrela familiekin bide batez kontaktua eta inplikazioa lortzen da.

2.8. Irakasleriaren eta ikasketa-buruaren inplikazioa

Proiektu hau 1. eta 2. DBHn ematen da. Koldo Mitxelena BHIIn dugun antolakuntza ezagututa maila hauetako irakasleriaren parte-hartzea %100 da. Koordinazio bileretan astero irakastaldea biltzen da eta bertan arloetako irakasleak ikasleen azterketa bere osotasunean egiten dute. Ez dira bereizten programan parte hartzen dutenak eta ez dutenak.

Egindako ekintza inklusiboetan arlo hauetako irakasleak agertzen dira bai 1. DBHn eta baita ere 2. DBHn:

MATEMATIKA

NATUR ZIENTZIAK

GIZARTE

FISIKA KIMIKA

Taldeetako irakasleen % 45

DBHko irakasleen % 40

Proiektuaren orientabideen barruan gelako ekintza inklusiboetan etapako ikasleen parte hartzea %100 izaten da.

Ikasketaburua izango da programaren koordinatzaile nagusia eta bai ikasturte hasieran eta baita ere azken ebaluaziorako ezinbestekoa izango da bere ere parte-hartzea bileretan.

2.9. Ebaluazioa

2.9.1. Ikasleen ebaluazioa

Ikasleei bi ebaluazio mota egingo zaizkie. Bat ebaluazioz ebaluazio, eta beste bat orokorra. Ebaluaketa bakoitzean ikasleak bere parte hartzeari probetsua ateratzen dion edo ez eta egindako hobekuntza begiratuko da. Kurtso bukaeran berriz, ikasleen lorpenak neurtuko direlarik.

Alde batetik arloko irakaslea eta HBSP//PREE irakaslea elkarlanean arituko dira eta astez-aste joango dira berrikusten ikaslearen lana eta hobekuntza. Bestetik ebaluazio saioetan emaitza akademikoak aztertuko dira eta bertan orientatzailea, tutorea eta arloetako irakasleak parte hartuko dute.

Ikasturtea bukatu baino lehen, arloko irakaslea eta HBSP//PREE irakaslea bilduko dira. Ikasleen emaitza akademikoak ebaluatuko dira eta ikasle bakoitzarentzat ezarritako helburuak noraino lortu diren eta lortu ez badira zein izan den arrazoia eta nola konpondu ere aztertuko da.

Hauek dira ikasleen ebaluazioa egiteko erabiltzen ditugun adierazleak:

Ikasturtean zehar ikasle hauei egingo zaizkien frogak izango dituzten emaitzak baliagarriak izango dira matrikulatu diren maila horretan egokitu diren edo ez jakiteko eta baita ere behar diren oinarrizko gaitasunak lortu dituzten jakin arazteko baliagarriak izango dira.

Ikasleen ebaluazio indikadore bezala gaitasun errealaren mailaren hobekuntza baloratzea proposatzen dugu. Ikasleak egindako esfortzua baloratzuz eta izandako emaitzak ere. Bere lana egokituko zaio eta ebaluazioa egokitzapen horretara egokituko da.

2.9.2. Proiektuaren ebaluazioa

Ikasturte hasieran mintegi buruek HBSP//PREE programa aurrera eramateko errefortzu plan globala eta banakako plan bat burutuko dute arloko irakasleekin batera.

Bigarren ebaluazioaren amaieran, mintegi buruak ikasturtean zehar ikusitako zailtasunak eta lorpenak ebaluatuko dituzte. Ikasturte hasieran egindako planaren memoria antolatuko dute eta azken doiketak antolatuko dira, horrela datorren urterako egin beharreko hobekuntzak eta aldaketak proiektuaren azken memorian islatuko dira.

Memoria egiten denean, zuzendaritza eta tutoreak bilduko dira. Bertan ondorioak aterako dira eta hortik bilduko dira ideiak hurrengo ikasturteko plangintzarako.

Beste indikadore batzuk:

Eskola giroaren hobekuntza

Gelako lan giroa

Konfliktoak beraien artean eta irakasleekiko

Absentismo tasa gutxitzea

Errendimendu akademikoa eta gaitasunen hobekuntza